



ELHUYAR
edizioak


IKASLEAREN LIBURUA

NOMINEN KUDEAKETA



Mari Feli Betegón Alonso

**HEZIKETA-
-ZIKLOAK**



NOMINEN KUDEAKETA

Egilea: Mari Feli Betegón Alonso
Koordinazioa: Lurdes Ansa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia: 2002-04-09

Hizkuntz zuzenketak: Xabier Aranburu

Azalaren diseinua eta maketa: M. Karmen Urdangarin

© Edizio honena: ELHUYAR Fundazioa. Asteasuain 14. 20170 USURBIL (Gip.) (2003)
h.el.: elhuyar@elhuyar.com - <http://www.elhuyar.org>

© Mari Feli Betegón Alonso

Aurkibidea

0. AURKEZPENA	5
0.1. HELBURU OROKORRAK.....	6
0.2. AMAIERAKO GAITASUNAK	6

1. SOLDATA ETA NOMINA.....	7
1.1. SARRERA.....	8
1.2. SOLDATA-KONTZEPTUA.....	8
1.3. LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA.....	8
1.4. SOLDATA-BERMERAKO FONDOA	9
1.5. NOMINAREN EGITURA.....	10
1.5.1. Aparteko ordainketak	10
1.6. NOMINEN KALKULUA ETA LIKIDAZIOA	10

2. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIAK: KENKETAK	13
2.1. SARRERA.....	14
2.2. SOLDATA GARBIA: KALKULUA	14
2.3. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIOA.....	14
2.3.1. Autonomoen gizarte-segurantzak	19
2.4. PERTSONA FISIKOEN ERRRENTAREN GAINEKO ZERGA.....	19
2.5. NOMINEN KALKULUA: KASU PRAKTIKOAK.....	21
2.5.1. Hileko ordainketa.....	21
2.5.2. Aparteko orduak	24
2.5.3. Aparteko ordainketak	27
2.5.4. Eguneroko ordainketa	30



3. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA	33
3.1. SARRERA.....	34
3.2. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-AGIRIAK:	
➤ TA2 EREDUA	
➤ TA1 EREDUA	34
3.2.1. Langileen banakako zerrenda: TA2 eredia.....	35
3.2.2. Kotizazio-buletina: TA1 eredia	36
3.3. TA1 ETA TA2 EREDUEN AURKEZPENA ETA PRESTAKUNTZA:	
KASU PRAKTIKOA.....	37
ERANSKINA. ABE ETA EHBARENGATIK EZARRITAKO EHUNEKOAK	40

4. PFEZ-AREN KONTURA EGINIKO ATXIKIPENEN LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA	42
4.1. SARRERA.....	43
4.2. ATXIKIPENEN KOPURUA.....	43
4.2.1. Lanaren etekinak.....	43
4.2.2. Jarduera profesionalen etekinak.....	45
4.2.3. Kapital higigarriaren etekinak	45
4.2.4. Sariak	45
4.3. HIRUHILEKO AITORPENA: 110 EREDUA	45
4.3.1. Kasu praktikoa	46
4.4. ATXIKIPENEN URTEKO LABURPENA: 190 EREDUA.....	48
4.4.1. Kasu praktikoa	52

BIBLIOGRAFIA	54
---------------------------	-----------



0 *Aurkezpena*

0.1. HELBURU OROKORRAK

0.2. AMAIERAKO GAITASUNAK



0.1. HELBURU OROKORRAK

Soldaten kudeaketa garatzeko Administrazio eta Finantzetan goi-mailako teknikariari dagozkion helburu orokorrak hauexek dira:

- 1) Nominen egitura ondo ulertzea. Jasotako soldata eta aparteko soldatak ondo bereiztea.
- 2) Nominan bertan egindako kenketak ondo zehaztea eta horien esanahia ondo ulertzea.
- 3) Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriak kalkulatzeko prozedura deskribatzea, baita likidatzekoa ere.
- 4) Nominen datuak ondo ulertzea eta horiek Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinetan ondo islatzea.
- 5) PFEZaren kontura egindako atxikipenak kalkulatzeko jarraitutako prozedura zehaztea.
- 6) Nominak betetzeko beharrezko kalkuluak zehatz-mehatz egitea. Era berean, nomina-agiria behar den bezala erabiltzea.

0.2. AMAIERAKO GAITASUNAK

Lanbide-modulu hori bukatutakoan, ikasleak honako gaitasunok bereganatuta behar ditu izan:

- 1) TA1 eta TA2 ereduak betetzeko prozedura sistematizatzea, kuotak likidatzeko beharrezko kalkuluak zehaztasun osoz eginez.
- 2) Enpresek bete behar dituzten etekin moten arabera, PFEZaren kontura eginiko atxikipenak zuzenki kalkulatzeko.
- 3) PFEZaren kontura egindako atxikipenen aitortpenerako beharrezko agiriak zehaztasun osoz betetzeko kalkuluak egin, datuak antolatu eta prozedura deskribatzea.



1 *Soldata eta Nomina*

1.1. SARRERA

1.2. SOLDATA-KONTZEPTUA

1.3. LANBIDE ARTEKO GUTXIENeko SOLDATA

1.4. SOLDATA-BERMERAKO FONDOA

1.5. NOMINAREN EGITURA

1.5.1. APARTEKO ORDAINKETAK

1.6. NOMINEN KALKULUA ETA LIKIDAZIOA



1.1. SARRERA

Lan-harreman ororen azken xedea lan-motaren arabera soldata jasotzea da. Soldata hori nomina deritzon agirian islatzen da. Beraz, esan dezagun soldataren egitura taldearen oinarritzko soldataz eta soldata-osagarriez osatua dagoela.

Lan hitzarmenik ezean, taldearen oinarritzko soldataren zenbatekoa enpresaren eta langileen legezko ordezkariak erabaki ohi dute; baina ezin da inoiz lanbide arteko gutxieneko soldatik beherakoa izan.

1.2. SOLDATA-KONTZEPTUA

Langileak besteentzat lan egiteagatik kobratzen duena da soldata, nahiz dirutan nahiz jenerotan. Jenerotan ordaindutako soldata ezin izango da soldata osoaren % 30 baino handiagoa izan.

Langileen Estatutuak salbuespen batzuk ezartzen ditu. Honako hauek dira:

- Lan-jardueragatik izaten diren gastuen ordainketak (dietak, lekualdatze-gastuak, lan-tresnak higitzea, monetaren ahultzea...).
- Gizarte Segurantzaren dirulaguntza eta ordainketak.
- Lekualdatzeei eta etenaldiei dagozkien ordainketak.

Hori dela eta, arestian aipatu bezala, kontzeptu horiek ez dira soldataren barnean sartzen.

1.3. LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATA

Langileen Estatutuak ezarri behar du –nahitaez– gutxieneko soldataren zenbatekoa. Soldata hori baino baxuagoko kontrataziorik egiterik ez dago. Sindikatu eta enpresa-elkarteekin kontsultatu ondoren, gobernuak erabakitzen du urtero lanbide arteko gutxieneko soldata.

Horretarako kontuan hartzen diren faktoreak hauexek dira:

- Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI).
- Lortutako batez besteko ekoizpen nazionala.
- Lanaren partaidetzak errenta nazionalan duen hazkundea.

2001. urterako finkatutako lanbide arteko gutxieneko soldata –edozein jarduera, sexu eta adinentzat (18 urtetik beherakoek berdin kobratuko dute)– honakoa da:

Langileak: 15,02 €/egun edota 450,60 €/hilabete

Aldi baterako eta sasoikako langileak: 21,03 €/egun.

Etxeko langilea: 5,41 €/egun



Lanbide arteko gutxieneko soldata ohiko lanegun bati dagokio. Horrexegatik, laneguna ohikoa baino laburragoa bada, dagokion zati proportzionala kobratuko da.

1.4. SOLDATA-BERMERAKO FONDOA

Legeak soldata kobratzea bermatu arren, kasu batzuetan enpresak kaudimenik gabe geldi daitezke. Hori dela-eta, soldatak ordaintzea ezinezko bihurtzen da. Egoera horiei aurre egiteko sortu zen **Soldata Bermerako Fondoa (FOGASA)**. Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren menpe dagoen erakunde autonomoa da. Enpresetan kaudimen-gabezia dagoen kasuetan soldata eta indemnizazioak ordaintzeaz arduratzen da.

Enpresaburuek Gizarte Segurantzari egindako kotizazioekin finantzatzen da Soldata Bermerako Fondoa.

Kasu praktikoa

Irati Goiti titulurik gabeko laguntzailea da. 2001eko iraileko soldata honako hau izan zuen:

- Oinarrizko soldata: 1081,82 €.
- Osagarriak:
 Lan Antzinasuna: 180,30 €.
 Hitzarmeneko plusa: 150,25 €.
 Bidaletako plusa: 90,15 €.

Bere soldata gordina hilabeteen jasotzen duen ordainketa guztien batura da:

$$1081,82 + 180,30 + 150,25 + 90,15 = 1502,52 \text{ €}$$

Bestalde, aparteko bi ordainketa jasotzeko eskubidea dauka. Oinarrizko soldata eta antzinasuna batuz kalkulatzen da bakoitza. Beraz, aparteko ordainketei dagokienez, hilero jasoko lukeena honakoa litzateke:

$$\begin{aligned} 1081,82 + 180,30 &= 1262,12 \text{ €} \\ 1262,12 \times 2 \text{ aparteko ordainketa} &= 2.524,24 \text{ €} \\ 2524,24/12 &= 210,35 \text{ €} \end{aligned}$$



1.5. NOMINAREN EGITURA

Nominaren egitura hitzarmen kolektiboan edota bakoitzaren kontratuan ezartzen da. Bi bloke handik osatua da: oinarritzko soldata eta osagarriak. Hitzarmen kolektiboan edota bakoitzaren kontratuan azaltzen dira horiek.

- *Oinarritzko soldata*, denbora edo lan-unitateko kategoria profesional bakoitzarentzat ezarritako ordainketaren zatia da. Lan egite hutsagatik jasotzen da, norberaren egoera edo enpresaren emaitzak kontuan hartu gabe.
- *Osagarriak*, langilearen egoera pertsonalak edo berak egindako lanarenak, edo enpresaren egoera eta emaitzak kontuan izanik oinarritzko soldatari egiten zaizkion gehikuntzak dira. Mota askotako osagarriak daude:
 - a) **Osagarri pertsonalak**: antzintasuna, hizkuntzak, titulu ofizialak.
 - b) **Lanpostuarekin erlazionatutakoak**: gaueko txanda, arriskua, toxikotasuna.
 - c) **Lan-kantitate edota kalitatearekin erlazionatutakoak**: aparteko ordainketak, jenerotan eginiko ordainketak (etxebizitza, autoa, seme-alaben hezkuntza...).

Bien arteko baturari *soldata gordina* deitzen zaio. Soldata gordinari kenketa batzuk aplikatu behar zaizkio langileak jasoko duen *soldata garbia* zein izango den kalkulatzeko.

1.5.1. Aparteko ordainketak

Lehen aipatu legeaz, aparteko ordainketak soldata-osagarriak dira. Baina, horien garrantzia kontuan izanik, zertan dautzan azalduko dugu.

Langileak urtero aparteko bi ordainketa jasotzeko eskubidea du; bata, Gabonetan, eta bestea, enpresaburu eta langileen ordezkarien artean hitzartutako edota hitzarmen kolektiboan erabakitako hilean.

Ordainketa horien zenbatekoa hitzarmenean edo lan-kontratuan finkatu behar da. Ordainketa 12 hilabetetan banatuta egon daiteke.

Dena dela, hitzarmen edo kontratuan horrela ezarria bada, aparteko bi ordainketa baino gehiago kobra daitezke.

Beste aparteko ordainketa bat *Irabazien ordainketa* deritzona da. Urtean barrena enpresaburuak lorturiko irabazien arabera izan behar du. Legeak ez du ezertxo ere esaten ordainketa horri buruz. Hori dela eta, hitzarmenean erabaki ohi da.

1.6. NOMINEN KALKULUA ETA LIKIDAZIOA

Hitzartutako data eta tokian egin behar du enpresaburuak nominen likidazioa eta ordainketa, atzerapenik gabe eta agiri egokiak erabiliz.

Ordainketa erregularrei dagokienez, soldata ordaintzeko epeak ezin du izan hilabetekoa baino luzeagoa.



Enpresa: .
Helbidea:
IFK:
Gizarte Segurantzako kotizazio-zenbakia:

Langilea:
IFZ: Matrikula liburuaren zk.a
Gizarte Segurantzako afiliazio zk.a:
Maila profesionala:
Kotizazio-taldea:

Kitapenaldia:e(ko)aren..... e(tik)ra.

Egunak guztira

GUZTIRA

I. SORRARAZIAK

1. Jasotako soldata
Oinarrizko soldata
Soldata-osagarriak
.....
.....
.....
Aparteko orduak
Aparteko ordainketak
Gauzen bidez jasotako soldata

2. Soldataz aparteko ordainketak
Indemnizazioak
Gizarte Segurantzako indemnizazioak eta laguntzak
Lekualdatze eta kaleratzeagatik izaniko indemnizazioak
Soldataz aparteko beste ordainketa batzuk
.....

A. SORRARAZITAKOA GUZTIRA

II. KENKETAK

1. Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei langilearen ekarpena
Gertakizun arruntak %
Langabezia:
Lanbide heziketa
Aparteko orduak
Egiturazkoak
Ez-egiturazkoak
EKARPENAK GUZTIRA

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga
3. Aurrerakinak
4. Gauzen bidez ordaindutakoaren balioa
5. Beste kenketa batzuk

B. KENTZEKOA GUZTIRA

ESKURATZEKOA GUZTIRA

enpresaren sinadura
eta zigilua

.....(e)ko ren..... e(an)
jaso dut

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN ETA BATERATUTAKO BILKETAREN KONTZEPTUEN ETA PFEZ-AREN GAINEKO ATXIKIPENEN OINARRIAREN KALKULUA

1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria
Hileko ordainketa:
Aparteko ordainketen hainbanaketa:

GUZTIRA:

2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (Langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata-Bermerako Fondoa).....

3. Aparteko orduengatik gehituriko kotizazio-oinarria

4. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria

Soldata ordaindua dela egiaztatzen duen nomina eman beharra dauka enpresaburuak langileei.

NOMINEN KALKULUA hurrengo gaian azalduko dugu. Lehenengo eta behin, Gizarte Segurantzako Kotizazioak eta Pertsona Fisikoen Errentaren Gainera zerga landu behar ditugu.



2 *Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriak: kenketak*

2.1. SARRERA

2.2. SOLDATA GARBIA: KALKULUA

2.3. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIOA

2.3.1. AUTONOMOEN GIZARTE-SEGURANTZA

2.4. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

2.5. NOMINEN KALKULUA: KASU PRAKTIKOAK

2.5.1. HILEKO ORDAINKETA

2.5.2. APARTEKO ORDUAK

2.5.3. APARTEKO ORDAINKETAK

2.5.4. EGUNEROKO ORDAINKETA



2.1. SARRERA

Enpresaburuak eta inoren konturako langileak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra kotizatzaera behartuta daude.

Kotizatzeko betebeharra, probaldia barne, lanaren prestazioaren hasieran bertan sortzen da, eta langilea Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda dagoen bitartean irauten du aldizkako lanetan, nahiz langabezia egoeretan, nahiz aldi baterako ezintasunean.

Kotizazioek bi ekarpen dituzte:

- Enpresaburuen ekarpenak.
- Langileen ekarpenak.

Enpresaburua da kotizatzearen arduraduna. Beraz, bere ekarpenak ez ezik bere langileenak ere sartu behar ditu Gizarte Segurantzako Lurraldeko Diruzaintzetan.

Enpresaburuak langileei, soldatak ordaintzen dizkien momentuan bertan, bakoitzari dagokion ekarpena deskontatu behar die. Horrela egingo ez balu gerora ezin izango luke deskontatu, eta enpresaburuak berak bere kontura ordaindu beharko lituzke kuota guztiak.

Bukatzeko, esan dezagun kotizatzeko betebeharra Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean baja eskatuz baino ez dela desagertzen.

2.2. SOLDATA GARBIA: KALKULUA

Langileak ez du bere soldata osorik jasotzen; bi eratako kenketak eginda baizik:

- Gizarte Segurantzako Kotizazioa.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Beraz, Soldata garbia = Oinarrizko soldata + Osagarri Pertsonalak – Kenketak

2.3. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIOA

Gizarte Segurantza finantzatzeko kopuru bat eman beharra daukate hilero bai langileek, bai enpresaburuek. Hala eta guztiz ere, horren zenbatekoa zehaztu egin behar da.

Langilearen **Kotizazio-oinarriari ehunekoa** aplikatzearen emaitza da langile eta enpresaburuek ordaindu behar duten kuota, hots:

$$\text{Ordaindu beharreko kuota} = \frac{\text{Kotizazio-oinarria} \times \text{kotizazio ehunekoa}}{100}$$



- **Kotizazio-ehunekoa.** Ordaindu beharreko kuota kalkulatzeko kotizazio-oinarriei aplikatzen zaien ehunekoa da. Langilearen eta enpresaburuaren artean banatzen da ehuneko hori, laneko istripuei, gaixotasunei eta Soldata Bermerako Fondoari dagokiena izan ezik.

Gobernuak ezartzen ditu ehuneko horiek. 2001. urterako ezarritako kotizazio-ehunekoak honako hauek dira:

KONTZEPTUAK	ENPRESA (%)	LANGILEA (%)	GUZTIRA (%)
Gertakizun arruntak.	23,6	4,7	28,3
Aparteko orduak: • Egiturazkoak. • Ez-egiturazkoak.	12 23,6	2 4,7	14 28,3
Langabezia: • Orokorra. • Iraupen mugatuko kontratua, denbora osokoa. • Iraupen mugatuko kontratua, denbora partzialekoa. • Iraupen mugatuko kontratua (ABLE)	6 6,7 7,7 7,7	1,55 1,6 1,6 1,6	7,55 8,3 9,3 9,3
Soldata Bermerako Fondo.	0,4	0	0,4
Lanbide Heziketa.	0,6	0,1	0,7
Laneko istripuak eta gaixotasunak: abenduaren 29ko 2930/79 Errege Dekretuko tarifa % 10 murriztua aplikatu behar da. Enpresari dagokio osorik.			

- **Kotizazio-oinarria.** Kuota kalkulatzeko kotizazio-ehunekoari aplikatu behar zaion kopurua da. Lau motatako kotizazio-oinarri daude:
 - a) Gertakizun arruntengatikoa.
 - b) Langabezia, Lanbide Heziketa eta Soldata Bermerako Fondoagatikoa.
 - c) Aparteko orduengatikoa.
 - d) Laneko gertakizunengatikoa. Kotizazio hori enpresari dagokio oso-osorik, hau da, langileak ez du horiengatik kotizatzen.

a) **Gertakizun arruntengatikoa.**

- 1) Kalkulatu nahi dugun hilabeteko ordainketa guztiak batzen dira. Beraz, ez ditugu kontuan hartu behar ondorengo hauek:
 - Bidaletako dietak, lekualdaketa-gastuak, distantzia-plusa eta hiri-garraioko plusa.
 - Heriotzagatiko ordainketak; lekualdatze, etenaldi eta kanporatzeengatikoa.
 - Moneta ahultzeagatik, tresnak higatzeagatik eta laneko arropak erosteagatik eginiko ordainketak.
 - Enpresak bere borondatez emandako produktuak.
 - Ezkontzagatiko ordainketak.
 - Gizarte Segurantzako laguntzak.
 - Aparteko orduak.
- 2) Lortu dugun kopuruari aparteko ordainketei dagokien zati proportzionala gehitzen zaio, *hainbanaketa* deritzona.



$$\text{Aparteko ordainketen hainbanaketa} = \frac{\text{Urteko aparteko ordainketen zenbatekoa}}{12}$$

- 3) Lortu dugun oinarriak langilearen kotizazio-taldeko oinarri maximo eta minimoaren artean egon behar du. Maximoa baino altuagoa edota minimoa baino baxuagoa bada, kasu bakoitzari dagokion maximoa edo minimoa hartu behar da.

ERREGIMEN OROKORREKO KOTIZAZIO-OINARRI MAXIMO ETA MINIMOAK			
Kotizazio-taldea	Maila profesionalak	Oinarri minimoak Euro/hileko	Oinarri maximoak Euro/hileko
1	Ingeniari eta Lizentziatuak	753,90	2.499,91
2	Ingeniari tekniko, peritu eta laguntzaile tituludunak	625,20	2.499,91
3	Administrari eta lantegiko buruak	543,60	2.499,91
4	Titulurik gabeko laguntzaileak	505,80	2.499,91
5	Ofizial administratiboak	505,80	2.380,37
6	Menpeko langileak	505,80	2.380,37
7	Laguntzaile administratiboak	505,80	2.380,37
		Euro/eguneko	Euro/eguneko
8	Lehen eta bigarren mailako ofizialak	16,86	79,35
9	Hirugarren mailako ofizialak eta espezialistak	16,86	79,35
10	Peoiak	16,86	79,35
11	18 urtetik beherako langileak (edozein mailatakoak)	16,86	79,35

- 4) Azkenik, dagokion kotizazio-ehunekoa aplikatu behar da.

b) Langabezia, Lanbide Heziketa eta Soldata Bermerako Fondoarengatikoa.

- 1) Gertakizun arruntengatiko kotizazio-oinarriari aparteko orduen zenbatekoa gehitu behar zaio.
- 2) Dagokion kotizazio-ehunekoa aplikatu behar da.

c) Aparteko orduengatikoa.

- 1) Langileak egin dituen aparteko orduen zenbatekoak osatu behar ditu.
- 2) Dagokion ehunekoa aplikatu behar zaio.

d) Laneko gertakizunengatikoa.

Langabezia, Lanbide Heziketa eta Soldata Bermerako Fondoaren Oinarriak berdinak dira. Hala ere, enpresaburuak berak ordaintzen ditu, ez langileak.

LANEKO ISTRIPU ETA GAIXOTASUNEI DAGOZKIEN OINARRIAK	
OINARRI MINIMOA	OINARRI MAXIMOA
EURO	EURO
505,80	2.499,91



Kasu praktikoa (Kasu praktiko honi dagokion nomina 2.4 irudian duzue)

Kalkula ezazu enpresa bateko zuzendariari dagokion Gizarte Segurantzako ekarpena, irailean ondorengo ordainsariak jaso zituela kontuan izanik:

- Oinarrizko soldata: 2.999,5 €.
- Antzinasuna: 2001-1-1

Urtero bi aparteko ordainketa jasotzen ditu.

Gertakizun arruntengatiko kotizazio-oinarria honela kalkulatu behar dugu:

- Oinarrizko soldata: 2.999,5 €.
- Aparteko ordainketen zati proportzionala gehitu behar dugu.
 $(2.999,5 \text{ €} \times 2) = 5.999 \text{ €} / 12 = 499,92 \text{ €}.$
 $2.999,5 \text{ €} + 499,92 \text{ €} = 3.499,42 \text{ €}.$

Zenbateko hau (3.499,42 €) kotizazio -talde bati dagokion kotizazio-oinarri maximotik gorakoa denez, hots, 2.499,91 eurotik gorakoa denez, azken zenbateko hau (2.499,91 €) gertakizun arruntengatiko kotizazio-oinarria kalkulatzeko kontuan hartu beharko da.

- Gertakizun arruntengatiko kenketa:
 $2.499,91 \text{ €} \times \% 4,7 = 117,50 \text{ €}.$
- Langabeziari dagokion kenketa:
 $2.499,91 \text{ €} \times \% 1,55 = 38,75 \text{ €}$
- Lanbide Heziketari dagokion kenketa:
 $2.499,91 \text{ €} \times \% 0,1 = 2,50 \text{ €}$

Aurreko guztia kontuan izanik, egiaztatuta dago irailean zehar langile honen Gizarte Segurantzako **EKARPENAK GUZTIRA** honako hauek izan zirela:

$$117,50 \text{ €} + 38,75 \text{ €} + 2,50 \text{ €} = 158,75 \text{ €}$$

Bestalde, enpresaburuak berak gertakizun arrunt, langabezia, Soldata Bermerako Fondo eta Lanbide Heziketako Kuota patronalei dagokien % 30,6 ordaindu behar izaten du hilerok.

Kasu praktiko berari jarraituz, esan dezagun soldataz gain honakook ere ordaindu behar dituela enpresaburuak:

- Gertakizun arruntengatik: $2.499,91 \text{ €} \times \% 23,6 = 589,98 \text{ €}.$
- Langabeziagatik: $2.499,91 \text{ €} \times \% 6 = 149,99 \text{ €}.$
- Soldata Bermerako Fondoagatik: $2.499,91 \text{ €} \times \% 0,4 = 10 \text{ €}.$
- Lanbide Heziketagatik: $2.499,91 \text{ €} \times \% 0,6 = 15 \text{ €}.$

$$\text{GUZTIRA} = 589,98 \text{ €} + 149,99 \text{ €} + 10 \text{ €} + 15 \text{ €} = 764,97 \text{ €}$$



Enpresa: Reynos, S. A.

Helbidea: Atxuri, 20

IFK: A25252525

Gizarte Segurantzako kotizazio-zenbakia: 48/0022243/00

Langilea: Miren Sarasola Beitia

IFZ: 22.504.705 X Matrikula liburuaren zk.a 1

Gizarte Segurantzako afiliazio zk.a: 48/0125432/16

Maila profesionala: Zuzendaria

Kotizazio-taldea: 1

Kitapenaldia: 2002.e(ko) .irailaren..1 e(tik) ..30.ra.		Egunak, guztira	30
I. SORRARAZIAK		GUZTIRA	
1. Jasotako soldata			
Oinarritzko soldata		2.999,50	
Soldata-osagarriak			
.....			
.....			
.....			
Aparteko orduak			
Aparteko ordainketak			
Jenerotan jasotako soldata			
2. Soldataz aparteko ordainketak			
Indemnizazioak			
Gizarte Segurantzako indemnizazioak eta laguntzak			
Lekualdatze eta kaleratzeagatik izaniko indemnizazioak			
Soldataz aparteko beste ordainketa batzuk			
.....			
A. SORRARAZITAKOA GUZTIRA			2.999,50
II. KENKETAK			
1. Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei langilearen ekarpena			
Gertakizun arruntak		%	
.....		4,70	117,50
Langabezia:		1,55	38,75
Lanbide-heziketa		0,10	2,50
Aparteko orduak			
Egiturazkoak			
Ez-egiturazkoak			
EKARPENAK GUZTIRA			158,75
2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga		20,0	599,90
3. Aurrerakinak			
4. Jenerotan ordaindutakoaren balioa			
5. Beste kenketa batzuk			
B. KENTZEKOA GUZTIRA			758,65
ESKURATZEKOA GUZTIRA (A-B).....			2.240,85
enpresaren sinadura eta zigilua		.2002.(e)ko irailaren.30.e(an) jaso dut	

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN ETA BATERATUTAKO BILKETAREN KONTZEPTUEN ETA PFEZ-AREN GAINEKO ATXIKIPENEN OINARRIAREN KALKULUA			
1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria			
Hileko ordainketa:		2.999,50	
Aparteko ordainketen hainbanaketa:		499,92	
GUZTIRA:		3.499,42	(2.499,91, O.M talde 1)
2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (Langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata Bermerako Fundoa).....		3.499,42	(2.499,91, M.M)
3. Aparteko orduengatik gehituriko kotizazio-oinarria			
4. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria		2.999,50	

2.3.1. AUTONOMOEN GIZARTE-SEGURANTZA

Autonomoek, gainerako langileek bezala, Gizarte Segurantzaren ere ordaindu behar dute. Hori dela-eta, kotizazio-oinarri maximo eta minimoak ere ezartzen zaizkie. Oinarri horiei kotizazio-ehunekoa aplikatzen zaie (2001ean % 28,3koa izan zen).

KOTIZAZIO-OINARRIA	KOTIZAZIO-EHUNEOA, 28,3
Maximoa: 2.499,91 €	707,47 €
Minimoa: 712,02 €	201,50 €

50 urtetik beherako langile autonomoak aukeraturiko kotizazio-oinarriaren arabera kotizatzen du, maximo eta minimoek ezartzen dituzten mugen barnean eta 18,03ren multiplora biribilduz.

Langileak aldi baterako ezintasunagatik babesa jaso ezean, bere kotizazio-ehunekoa % 26,5koa izan behar du.

50 urtetik gorako langileek oinarri minimo eta 1.334,25 euroko maximoaren artean aukeratu ahal dute, aurretik oinarri altuagorik kotizatu ez bazuten. Kasu honetan, oinarri hau mantentzeko, edota erregimen honetako kotizazio-oinarri maximoa igo den ehuneko berean igo daiteke.

2.4. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

PFEZa pertsona fisikoaren errenta kargatzen duen zerga pertsonala eta zuzeneko da.

Langilearen urteko soldataren arabera eta duen seme-alaba kopuruaren arabera, enpresaburuak kopuru batzuk atxikitzen dizkio langileari.

Gizarte Segurantzako kenketak aplikatu gabeko erabateko soldataren ehunekoa ezarritik kalkulatu da PFEZari dagokion kenketa.

2001erako finkatutako PFEZari dagozkion atxikipeak ondorengo taulan ageri dira:

Urteko etekinaren zenbatekoa		Seme-alaba kopurua						
Euroak gutxienez	Euroak gehienez	0	1	2	3	4	5	6 edo >
0	8.269,93	0	0	0	0	0	0	0
8.269,93	8.726,70	1	0	0	0	0	0	0
8.726,70	9.237,56	2	0	0	0	0	0	0
9.237,56	9.808,52	3	1	0	0	0	0	0
9.808,52	10.457,61	4	2	0	0	0	0	0
10.457,62	11.082,66	5	3	1	0	0	0	0
11.082,67	11.581,50	6	4	2	0	0	0	0
11.581,51	12.128,42	7	5	3	0	0	0	0
12.128,43	12.723,43	8	6	5	2	0	0	0
12.723,43	13.384,54	9	8	6	3	0	0	0
13.384,55	14.117,77	10	9	7	4	2	0	0
14.117,78	14.935,15	11	10	8	6	3	1	0
14.935,15	15.854,70	12	11	9	7	5	2	0
15.854,71	17.327,18	13	12	10	8	6	4	0
17.327,18	20.308,20	14	13	11	9	7	5	0
20.308,21	22.604,07	15	14	13	11	9	7	2
20.604,07	24.611,45	16	15	14	12	11	9	4
24.611,45	27.021,50	17	16	15	14	12	10	6
27.021,51	29.954,44	18	17	16	15	13	12	8
29.954,45	33.614,61	19	18	17	16	15	14	10
33.614,61	37.256,74	20	19	19	18	16	15	12
37.256,75	39.931,24	21	20	20	19	18	17	14
39.931,25	42.593,73	22	21	21	20	19	18	15
42.593,73	45.646,87	23	23	22	21	20	19	16
45.646,88	49.168,80	24	23	23	22	21	20	17
49.168,81	52.143,81	25	25	24	23	22	22	19
52.143,82	55.233,01	26	25	25	24	23	23	20
55.233,02	58.724,89	27	27	26	25	25	24	21
58.724,90	62.685,56	28	28	27	27	26	25	22
62.685,57	67.235,22	29	29	28	28	27	26	24
67.235,23	72.500,09	30	30	29	29	28	28	25
72.500,10	77.470,46	31	31	30	30	29	29	27
77.470,47	82.134,31	32	32	31	31	30	30	28
82.134,32	87.399,18	33	33	32	32	31	31	30
87.399,19	93.343,19	34	34	33	33	33	32	31
93.343,20	99.858,16	35	35	34	34	34	33	32
99.858,17	107.346,77	36	36	36	35	35	34	33
107.346,78	115.941,25	37	37	37	36	36	35	34
115.941,25	126.026,23	38	38	38	37	37	37	36
126.026,23	138.028,44	39	39	39	38	38	38	37
138.028,45	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	38



Kasu praktikoarekin jarraituz, demagun langileak 41.993 euroko urteko soldata eta hiru seme-alaba dituela. Beraz, % 20ko ehunekoa aplikatu behar zaio.

Jasotako soldata = oinarrizko soldata = 2.999,5 €.

$$2.999,5 \text{ €} \times \% 20 = 599,9 \text{ €}$$

Kasu praktiko hau 2.1. irudian duzue.

2.5. NOMINEN KALKULUA: KASU PRAKTIKOAK

2.5.1. HILEKO ORDAINKETA

Egin ezazue irailari dagokion *nomina*, ondorengo datuak kontuan izanik:

- Enpresa: Reynos, S.A.
- Helbidea: Atxuri, 20
- IFZ: A25252525
- Gizarte Segurantzako kotizazio-zenbakia: 48/0022243/00
- Langilea: Ana Beriz Gartzia
- Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia: 48/0025435/19
- Langilearen IFZ: 11111111B
- Matrikula-liburuaren zenbakia: 2
- Ofizial administratiboa (5.taldea)
- Enpresan lanean lau urtez dihardu.
- Bi seme-alaba dauzka bere kargu.

Hitzarmen kolektiboaren arabeko ordainketak honako hauek dira:

- Oinarrizko soldata: 901,52 €.
- Antzinasuna: hirurteko/37,26 €.
- Garraioko plusa: 42,07 €.
- Urteko bi aparteko ordainketa jasotzen ditu.

Ebazpena:

2.2. irudiko nomina betetzeko honako kalkulu hauek egin behar dira:

☐ I. SORRARAZIAK

- Antzinasuna: langileak lau urtez dihardu enpresan. Beraz, hirurteko bat dagokio, hau da, 37,26 €.
- Garraioko plusa: soldataz aparteko ordainketei dagokien kutxatilan jarri behar da, Gizarte Segurantzarako kotizatetik salbuetsita baitago.

☐ Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarrien eta bateratutako bilketaren kontzeptuen eta PFEZaren gaineko atxikipenen oinarriaren kalkulua.

Kotizazio-oinarria kalkulatzeko ez da garraioko plusa kontuan hartu behar.

Kotizazio-oinarriak, normalizatu ostean, nominaren beheko partean islatzen dira.



1. Gertakizun arruntengatik eginiko kotizazioen oinarria.

Ordainsaria:

Oinarritzko soldata: 901,52 €

Antzinasuna: 37,26 €

.....
Guztira 938,78 €

➤ Aparteko ordainketen hainbanaketa:

$$\frac{(901,52 + 37,26) \times 2}{12} = 156,46$$

➤ Gertakizun arruntengatik eginiko kotizazioen oinarria:

$$938,78 + 156,46 = 1.095,24 \text{ €}$$

2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (Langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata-Bermerako Fondoa)

Oinarri horiek gertakizun arruntengatik egindako oinarriak bezalakoxeak dira, langileak aparteko ordurik ez baitu egin.

Llen, GPen, Lren eta LHaren oinarriak: 1.095,24

3. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria:

$$901,52 \text{ €} + 37,26 \text{ €} + 42,07 = 980,85 \text{ €}$$

□ II. KENKETAK

1. Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei langilearen ekarpena.

Gertakizun arruntak:..... 1.095,24 € x % 4,7 = 51,48 €
Langabezia:..... 1.095,24 € x % 1,55 = 16,98 €
Lanbide Heziketa: 1.095,24 € x % 1 = 10,95 €

EKARPENAK GUZTIRA 79,41 €

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Enpresak, urtarilaren 1ean, urte osoan zehar langileari kenduko dion PFEZaren ehunekoa zein izango den kalkulatu behar du. Horretarako, urte osorako aurreikusitako soldata gordina kalkulatu behar dugu:

Oinarritzko soldata: 901,52 € x 12 = 10.818,24 €
Antzinasuna: 37,26 € x 12 = 447,12 €
Garraioko Plusa: 42,07 € x 12 = 504,84 €
Aparteko ordainketak: (901,52 + 37,26) x 2 = 1.877,56 €

Urteko aurreikusitakoa, guztira = 13.647,76 €



Hori guztia kontuan izanik, hona emaitza: % 7ko ehunekoa aplikatu behar zaio 13.647,76 euroko urteko soldata eta bi seme-alaba dauzkan langileari. Beraz, PFEZaren gaineko atxikipena:

$$980,85 \text{ €} \times \% 7 = \text{.....} \quad 68,66 \text{ €}$$

2.5.2. APARTEKO ORDUAK

Egin ezazue laguntzaile administratibo baten urriko nomina, ondorengo datuak kontuan izanik:

- Peio Zabala Martinez
- Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia: 48/0022222/28
- IFZ: 20200201M
- Kotizazio-taldea: 7
- Matrikula-liburuaren zenbakia: 3
- Enpresan zazpi urtez dihardu
- Alaba bat dauka bere kargu

Ordainsariak:

- Oinarritzko soldata: 691,16 €
- Antzinasuna: hirurteko/oinarritzko soldataren % 4.
- Hizkuntzak: 90,15 €
- Dirua erabiltzeagatiko kalte-ordaina: 30,05 €
- Ez-egiturazko aparteko orduak: 120,20 €
- Urteko bi aparteko ordainketa jasotzen ditu.
- Urte osorako aurreikusitako ordainsari gordina: 11.419,23 €

Ebazpena:

Nomina betetzeko (2.3. irudia) ondorengo kalkuluak egin behar dira:

❑ I. SORRARAZIAK

- Antzinasuna: $(691,16 \times 0,04) \times 2 = 55,29 \text{ €}$.
- Dirua erabiltzeagatiko kalte-ordaina. Zenbateko hau kotizatetik salbuetsita dauden soldataz aparteko ordainketei dagokien kutxatilan jarri behar da.

❑ Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren eta bateratutako bilketaren kontzeptuen eta PFEZaren gaineko atxikipenen oinarriaren kalkulua.

Kotizazio-oinarriak kalkulatzeko ez dira soldataz aparteko ordainketak kontuan hartzen. Guri dagokigun kasuan, dirua erabiltzeagatiko kalte-ordaina da agertuko ez dena. Era berean, aparteko orduak ez dira gertakizun arruntengatik kotizatzen.

1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria.

➤ Ordainsaria:	
Oinarritzko soldata	691,16 €
Antzinasuna	55,29 €
Hizkuntzak	90,15 €
Guztira	836,60 €



- Aparteko ordainketen hainbanaketa:

$$\frac{(691,16 + 55,29) \times 2}{12} = 124,41 \text{ €}$$

- Gertakizun arruntengatik eginiko kotizazioen oinarria:

$$836,60 \text{ €} + 124,41 \text{ €} = \text{..... } 961,01 \text{ €}$$

Zenbateko honek (961,01 €) oinarri maximo eta minimoaren artean dagoela egiaztatzen digu (7.taldea).

2. Laneko Gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (Langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata Bermerako Fondoa)

Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria:.....	961,01 €
Ez-egiturazko aparteko orduak:	120,20 €
Ordainsaria, Guztira:.....	1.081,21 €

Zenbateko honek (1.081,21€) Laneko Istripuen, Gaixotasun Profesionalen, Langabeziaren, Lanbide Heziketaren oinarri maximo eta minimoaren artean dagoela egiaztatzen digu.

$$\text{Beraz, Llen, GPen, Lren eta LHren oinarriak: } 1.081,21\text{€}$$

3. Aparteko orduengatik gehituriko kotizazio-oinarria: 120,20 €

4. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria:

Oinarri honek hileko **SORRARAZITAKOA GUZTIRA** bezalakoxea izan behar du, hau da:

$$691,16 \text{ €} + 55,29 \text{ €} + 90,15 \text{ €} + 120,20 \text{ €} + 30,05 \text{ €} = 986,85 \text{ €}$$

II. KENKETAK

1. Langilearen ekarpena Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei.

Gertakizun arruntak:.....	961,01 € x % 4,70 =	45,17 €
Langabezia:.....	1.081,21 € x % 1,55 =	16,76 €
Lanbide Heziketa	1.081,21 € x % 1,00 =	10,81 €
Ez-egiturazko aparteko orduak	120,20 € x % 4,70 =	5,65 €
EKARPENAK GUZTIRA		78,39 €

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

$$\text{PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria:..... } 986,85 \text{ €}$$

11.419,23 euroko urteko soldata eta alaba bat duela kontuan izanik, % 4ko ehunekoa aplikatu behar zaio. Horrexegatik, PFEZaren gaineko atxikipenak honako hau izan behar du: $986,85 \text{ €} \times \% 4 = 39,47 \text{ €}$



Enpresa: **REYNOS, S.A.**

Helbidea: *Santander, 20*

IFK: *A 25252525*

Gizarte Segurantzako kotizazio-zenbakia: 48/0022243/00

Langilea: **ZABALA MARTINEZ, PEIO**

IFZ: *20200201M* Matrikula liburuaren zk.a *3*

Gizarte Segurantzako afiliazio zk.a: **48/0022222/28**

Maila profesionala: **Laguntzaile administratiboa**

Kotizazio-taldea: *7*

Kitapenaldia: .2001.....e(ko)urriaren.....1 e(tik)31...ra.		Egunak guztira	31
I. SORRARAZIAK		GUZTIRA	
1. Jasotako soldata			
Oinarrizko soldata		691,16	
Soldata-osagarriak			
.Antzinatasuna.....		55,29	
.Hizkuntzak.....		90,15	
.....			
Aparteko orduak		120,20	
Aparteko ordainketak			
Jenerotan jasotako soldata			
2. Soldataz aparteko ordainketak			
Indemnizazioak			
<i>Dirua erabiltzeagatiko kalte-ordaina</i>		30,05	
Gizarte Segurantzako indemnizazioak eta laguntzak			
Lekualdatze eta kaleratzeagatik izaniko indemnizazioak			
Soldataz aparteko beste ordainketa batzuk			
A. SORRARAZITAKOA, GUZTIRA			986,85
II. KENKETAK			
1. Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei langilearen ekarpena			
Gertakizun arruntak	4,70	45,17	
Langabezia:	1,55	16,76	
Lanbide heziketa	0,10	1,08	
Aparteko orduak			
Egiturazkoak			
Ez-egiturazkoak	4,70	5,65	
EKARPENAK, GUZTIRA		68,66	
2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	4	34,67	
3. Aurrerakinak			
4. Gauzen bidez ordaindutakoaren balioa			
5. Beste kenketa batzuk			
B. KENTZEKOAK, GUZTIRA			103,33
ESKURATZEKOAK, GUZTIRA. (A-B)			883,52
enpresaren sinadura eta zigilua		Bilbon, 2001...(e)ko ..urriaren.30e(an) jaso dut	

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN ETA BATERATUTAKO BILKETAREN KONTZEPTUEN ETA PFEZ-AREN GAINEKO ATXIKIPENEN OINARRIAREN KALKULUA			
1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria		836,60	
Hileko ordainketa:		124,41	
Aparteko ordainketen hainbanaketa:			
GUZTIRA:		961,01	
2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta PG) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata Bermerako Fondoa.....		1.081,21	
3. Aparteko orduengatik gehituriko kotizazio-oinarria		120,20	
4. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria		986,85	

2.5.3. APARTEKO ORDAINKETAK

Egin ezazue ingeniari tekniko baten uztaileko nomina, hil honetan aparteko ordainketa hauetariko bat kobratuko duela kontuan izanik:

- Idoia Bartolome Bilbao
- Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia: 48/0033333730
- IFZ: 30300401L
- Matrikula-liburuaren zenbakia: 4
- Kotizazio-taldea: 2

Ordainsariak:

- Oinarrizko soldata: 1.202,02 €
- Pizgarriak: 120,20 €
- Jarduera: 60,10 €
- Egiturazko aparteko orduak: 150,25 €
- Ez-egiturazko aparteko orduak: 62,20 €
- Garraioko plusa: 30,05 €
- Jantzietarako plusa: 12,02 €
- Urtean behin bi aparteko ordainketa jasotzen ditu, horietariko bat hil honetan.
- Urte osorako aurreikusitako ordainsari gordina 21.035,42 eurokoa izango da.
- Ez dauka seme-alabarik.

Ebazpena:

2.4. irudian nomina beteta duzue.

❑ I. SORRARAZIAK

Uztaileko nominan aparteko ordainketa islatu behar da. Era berean, garraioko eta jantzietako plusak soldataz aparteko ordainketak direla kontuan hartu behar da.

❑ Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarrien eta bateratutako bilketaren kontzeptuen eta PFEZaren gaineko atxikipenen oinarriaren kalkulua.

Garraioko eta jantzietako plusak gertakizun horiengatik kotizatzen salbuetsita daude. Bestalde, aparteko orduak eta aparteko ordainketak ez dira gertakizun arruntengatik kotizatzen.

1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria

➤ Ordainsaria:	
Oinarrizko soldata	1.202,02 €
Antzintasuna	120,20 €
Hizkuntzak	60,10 €
Guztira	1.382,32 €

- Aparteko ordainketen hainbanaketa:

$$\frac{1.202,02 \times 2}{12} = 200,34$$

- Gertakizun arruntengatik eginiko kotizazioen oinarria:

$$1.382,32 + 200,34 = 1.582,66 \text{ €}$$



Zenbateko honek (1.582,66 €) oinarri maximo eta minimoa ren artean dagoela egiaztatzen digu (2. taldea).

2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (Langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata-Bermerako Fondoa).

Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria:.....	1.582,66 €
Egiturazko aparteko orduak:	150,25 €
Ez-egiturazko aparteko orduak:	62,20 €
Ordainsaria, Guztira:.....	1.795,11 €

Zenbateko honek (1.795,11 €) Laneko Istri puen, Gaixotasun Profesionalen, Langabeziaren, Lanbide Heziketaren oinarri maximo eta minimoaren artean dagoela egiaztatzen digu.

Beraz, *Llen*, *GPen*, *Lren* eta *LHaren* oinarriak: 1.795,11 €

3. Aparteko orduengatik gehituriko kotizazio-oinarria:

Egiturazko aparteko orduak:	150,25
Ez egiturazko aparteko orduak:	62,20

4. PFEZaren gainera atxikipenen oinarria:

Oinarri honek hileko SORRARAZITAKOA GUZTIRA bezalakoxea izan behar du, hots:

$$1202,02 \text{ €} + 120,20 \text{ €} + 60,10 \text{ €} + 62,20 \text{ €} + 150,25 \text{ €} + 1.202,02 \text{ €} + \\ + 30,05 \text{ €} + 12,02 \text{ €} = 2.838,86 \text{ €}$$

II KENKETAK

1. Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei langilearen ekarpena.

Gertakizun arruntak:.....	$1.582,66 \times 0,047 = 74,39 \text{ €}$
Langabezia:.....	$1.795,11 \times 0,0155 = 27,82 \text{ €}$
Lanbide Heziketa:	$1.795,11 \times 0,001 = 1,80 \text{ €}$
Egiturazko aparteko orduak:	$150,25 \times 0,02 = 3,00 \text{ €}$
Ez-egiturazko aparteko orduak	$62,20 \times 0,047 = 2,92 \text{ €}$
EKARPENAK GUZTIRA	109,93 €

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gainera Zerga.

21.035,42 euroko urteko soldata eta seme-alabarik ez daukala kontuan izanik; % 15eko ehunekoa aplikatu behar zaio langileari. Beraz:

$$PFEZaren gainera atxikipena: 2.838,86 \text{ €} \times 0,15 = 425,83 \text{ €}$$



Enpresa: REYNOS, S.A.	Langilea: BARTOLOME BILBAO, IDOIA
Helbidea: Santander, 20	IFZ: 30300401 L Matrikula liburuaren zk.a 4
IFK: A25252525	Gizarte Segurantzako afiliazio zk.a: 48/0033333730
Gizarte Segurantzako kotizazio-zenbakia: 48/ 0022243/00	Maila profesionala: Ingeniari teknikoa
	Kotizazio-taldea: 2

Kitapenaldia:2001e(ko).....uztailaren.....1 e(tik).....31.ra.	Egunak guztira	31
I. SORRARAZIAK		GUZTIRA
1. Jasotako soldata		
Oinarrizko soldata	1.202,02	
Soldata-osagarriak		
Pizgarriak	120,20	
Jarduera.....	60,10	
Aparteko orduak ..60,20 +150,25	212,45	
Aparteko ordainketak	1202,02	
Jenerotan jasotako soldata		
2. Soldataz aparteko ordainketak		
Indemnizazioak		
Garraioa.....	30,05	
Gizarte Segurantzako indemnizazioak eta laguntzak		
Lekualdatze eta kaleratzeagatik izaniko indemnizazioak		
Soldataz aparteko beste ordainketa batzuk		
Jantzia.....	12,02	
A. SORRARAZITAKOA, GUZTIRA		2.838,86
II. KENKETAK		
1. Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei langilearen ekarpena		
Gertakizun arruntak	4,70 %	74,39
Langabezia:	1,55	27,82
Lanbide heziketa	0,10	1,80
Aparteko orduak		
Egiturazkoak	2,00	3
Ez-egiturazkoak	4,70	2,92
EKARPENAK, GUZTIRA		109,93
2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	15	425,83
3. Aurrerakinak		
4. Jenerotan ordaindutakoaren balioa		
5. Beste kenketa batzuk		
B. KENTZEKOA, GUZTIRA		535,76
ESKURATZEKOA GUZTIRA (A-B)		2.303,10
enpresaren sinadura eta zigilua	.Bilbon,2001...(e)ko .uztailaren.30.. e(an) jaso dut	

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN ETA BATERATUTAKO BILKETAREN KONTZEPTUEN ETA PFEZ-AREN GAINEKO ATXIKIPENEN OINARRIAREN KALKULUA		
1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria		
Hileko ordainketa:		1.382,32
Aparteko ordainketen hainbanaketa:		200,34
GUZTIRA:		1.582,66
2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata Bermerako Fondoa).....		1.795,11
3. Aparteko orduengatik gehituriko kotizazio-oinarria		62,20 +150,25
4. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria		2.838,86

2.5.4. EGUNEROKO ORDAINKETA

Egin ezazue bigarren mailako ofizial baten (8. taldea) urriko nomina, ondorengo datuak aintzat hartuta:

- Iñaki Rementeria Arevalo
- Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia: 48/0055555/29
- IFZ: 50200304V
- Matrikula-liburuaren zenbakia: 5
- Hiru seme-alaba dauzka bere kargu

Ordainsariak:

- Oinarrizko soldata: 25,24 euro/eguneko.
- Jarduerako plusa: 5,11 euro/eguneko
- Urtean behin bi aparteko ordainketa jasotzen ditu. Aparteko ordainketa bakoitza oinarrizko soldataren hogeita hamar eguni dagokio.

Ebazpena:

Nomina betetzeko (2.5. irudia) honako kalkuluok egin behar dira:

❑ I. SORRARAZIAK

Sorraziazak hileko egunez neurtu behar dira.

- Oinarrizko soldata: 25,24 euro/eguneko x 30 egun = 757,2
- Jarduerako plusa: 5,11 euro/eguneko x 30 egun = 153,3
- Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarrien eta bateratutako bilketaren kontzeptuen eta PFEZaren gaineko atxikipenen oinarriaren kalkulua.

1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria.

Oinarrizko soldata: 25,24
Jarduerako plusa: 5,11

Guztira 30,35

- Aparteko ordainketen hainbanaketa: $\frac{25,24 \times 30 \times 2}{365} = 4,15$

- Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria:

$$30,35 + 4,15 = 34,5$$

Zenbateko honek (34,5 euro) oinarri maximo eta minimoaren artean dagoela erakusten digu (8. taldea).

Hori dela eta, *Gertakizun arruntengatik eginiko kotizazioen oinarria*:

$$34,5 \times 30 \text{ egun} = 1.035 \text{ euro}$$

2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (Langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata Bermerako Fundoa)

Oinarri horiek gertakizun arruntengatik egindako oinarriak bezalakoxeak dira, langileak aparteko ordurik ez daukala aintzat hartuta. Beraz:



Llen, GPen, Lren eta LHaren oinarriak: 1.035 eurokoak dira

3. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria:

Oinarri honek hileko **SORRARAZITAKOA GUZTIRA** bezalakoxea izan behar du, hau da:

$$25,24 \times 30 + 5,11 \times 30 = 910,5 \text{ euro}$$

II. KENKETAK

1. Langilearen ekarpena Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei.

Gertakizun arruntak:.....	$1.035 \times 0,047 = 48,65\text{€}$
Langabezia:.....	$1.035 \times 0,0155 = 16,04\text{€}$
Lanbide Heziketa:	$1.026 \times 0,001 = 1,04\text{€}$

EKARPENAK GUZTIRA	65,73 €
-------------------------	----------------

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Enpresak urtarrean kalkulatu behar du urte osoan zehar langileari kenduko dion PFEZaren ehunekoa zein izango den. Horretarako, urte osorako aurreikusitako soldata gordina zein den jakin behar dugu:

Oinarrizko soldata:	$25,24 \times 365 = 9.212,60$
Jarduerako plusa:.....	$5,11 \times 365 = 1.865,15$
Aparteko ordainketak:	$25,24 \times 30 \times 2 = 1.514,40$

Urteko aurreikusitakoa, guztira:	12.592,15
---	------------------

Aurreko guztia kontuan izanik, hona emaitza: % 2ko ehunekoa aplikatu behar zaio 12.592,15 euroko urteko aurreikusitako soldata eta hiru seme-alaba dituen langile horri. Horrexegatik:

$$\text{PFEZaren gaineko atxikipena: } 910,5 \times \% 2 = 18,21$$



Enpresa: .REYNOS, S.A
Helbidea: Santander, 20
IFK: A25252525
Gizarte Segurantzako kotizazio-zenbakia: 48/0022243/00

Langilea: REMENTERIA AREVALO, IÑAKI
IFZ: 15678543 L Matrikula liburuaren zk.a 5
Gizarte Segurantzako afiliazio zk.a: 48/0088888/18
Maila profesionala: Bigarren mailako ofiziala
Kotizazio-taldea: 8

Kitapenaldia:2001eko urriaren .1etik)31..ra.

Egunak guztira

31

I. SORRARAZIAK

GUZTIRA

1. Jasotako soldata
Oinarrizko soldata (25,24 x 30).....757,2
Soldata-osagarriak

Jarduera (5,11 x 30)153,3
.....
.....

Aparteko orduak
Aparteko ordainketak
Jenerotan jasotako soldata

2. Soldataz aparteko ordainketak

Indemnizazioak
Gizarte Segurantzako indemnizazioak eta laguntzak
.....
Lekualdatze eta kaleratzeagatik izaniko indemnizazioak
.....
Soldataz aparteko beste ordainketa batzuk
.....

A. SORRARAZITAKOA, GUZTIRA910,50

II. KENKETAK

1. Gizarte Segurantzako kotizazioei eta bateratutako bilketaren kontzeptuei langilearen ekarpena
Gertakizun arruntak4,70%.....48,65
Langabezia:1,55.....16,04
Lanbide heziketa0,10.....1.04
Aparteko orduak
Egiturazkoak
Ez-egiturazkoak

EKARPENAK, GUZTIRA65,73

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga2,00.....18,21

3. Aurrerakinak

4. jenerotan ordaindutakoaren balioa

5. Beste kenketa batzuk

B. KENTZEKOA, GUZTIRA83,94

ESKURATZEKOA, GUZTIRA (A – B).....826,56

enpresaren sinadura eta zigilua Bilbon, 2001eko urriaren.30e(an) jaso dut

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIEN ETA BATERATUTAKO BILKETAREN KONTZEPTUEN ETA PFEZ-AREN GAINEKO ATXIKIPENEN OINARRIAREN KALKULUA

1. Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria
Hileko ordainketa:910,50

Aparteko ordainketen hainbanaketa:124,50

GUZTIRA:1.035,00

2. Laneko gertakizunengatik egindako kotizazio-oinarria (LI eta GP) eta bateratutako bilketaren kontzeptuak (langabezia, Lanbide Heziketa, Soldata Bermerako Fondoa).....1035,00

3. Aparteko orduengatik gehituriko kotizazio-oinarria

4. PFEZaren gaineko atxikipenen oinarria910,50

2.5. irudia. Eguneroko ordainketari buruzko nomina.

3 *Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioa eta diru-sarrera*

3.1. SARRERA

3.2. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIO- -AGIRIAK:

➤ TA2 EREDUA

➤ TA1 EREDUA

3.2.1. LANGILEEN BANAKAKAKO ZERRENDIA:
TA2 EREDUA

3.2.2. KOTIZAZIO-BULETINA: TA1 EREDUA

3.3. TA1 ETA TA2 EREDUEN AURKEZPENA ETA PRESTAKUNTZA: KASU PRAKTIKOA



3.1. SARRERA

Aurreko gaitan azaldu bezala, enpresaburuak eta inoren kontura lan egiten duten langileak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrari kotizatu beharra daukate.

Izan ere, enpresaburuak langileei (ordainsariak ordaintzen dizkien momentuan bertan) bakoitzari dagokion ekarpena kendu egin behar dio. Era berean, Gizarte Segurantzako Lurraldeko altxortegietan langileenak eta enpresaburuenak berenak ere sartu behar ditu.

Bestalde, enpresaburuek lan-etekinak edota Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak ordaintzean (aldi baterako ezintasuna, adibidez), derrigortuta daude ehuneko batzuk atxikitzen PFEZaren kontura.

Dena dela, dagozkien erakundeei deskontua egin eta honako kontzeptuok likidatu beharra daukate enpresaburuek:

- ✓ Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrari egindako kotizazioak.
- ✓ PFEZaren konturako atxikpenak.

Bukatzeko, esan dezagun kuotak likidatzeko eta sartzeko agiriren batzuk betetzea behar-beharrezkoa dela (TA1 eta TA2 ereduak, adibidez).

3.2. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIO- -AGIRIAK

TA2 eta TA1 ereduak

Kotizazio-Agirien bitartez, gauzatu egiten dira Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrari langileek eta enpresaburuek egiten dizkioten kuoten likidazioa eta diru-sarrera. Kotizazio Agiri hori TA2 eta TA1 ereduak osatzen dute. Bestalde, kuoten likidazioak eta diru-sarrerak hileko aldizkakotasuna daukate.

➤ TA2 EREDUA

Kotizazio-oinarriak betetzeko enpresa batek aurkeztu behar duen langileen banakako zerrenda da eredu hori. Eredu horretan sailkatu egiten dira langileak, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen arriskuen izenburuen arabera. Horretarako, arrisku-izenburu bakoitzeko kotizazio-oinarrien zenbatekoak guztira kalkulatu behar dira.

➤ TA1 EREDUA

Kotizazio-buletin horretan enpresaburu eta langileei dagozkien kuotak islatzen dira. Batera kalkulatu dira horiek, sartu beharreko zenbatekoa zehazteko.



Bestalde, agiriaren eredu bakoitza lau alez osaturik dago, enpresak laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen estaldura ugazaben mutualitate pribatu batekin kontratatzen duenean. Gertakizun horien estaldura Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin hitzartuz gero, hiru ale baino ez dira aurkeztu behar.

Kuoten diru-sarrera horretarako baimen berezia duten finantza-erakundeetan egin behar da eta likidazioa hurrengo hilabetean aurkeztu behar da. Halaber, Gizarte Segurantzako Altxortegi Orokorren izenean, entitate horiek enpresaburuari frogagiri gisa ale sinatu bat eman behar diote.

Izan ere, aurkezteko epeak bete ezean, errekarquak ezartzen dira. Errekargu horiek kuoten % 5etik %35era bitartekoak izan ohi dira.

Dena den, kotizazioaren agirien kopiak behar bezala artxibatu eta sailkatuta mantendu behar dira, nominen kopiekin batera, sei urtean gutxienez.

3.2.1. LANGILEEN BANAKAKO ZERREDA: TA2 EREDUA

Langileen banakako zerrenda, TA2 deritzona, hiru zatitan banatuta dago:

1. Identifikatzeko datuak.

Atal horretan, enpresari dagozkion datuak agertzen dira; identifikazio-kodea eta Gizarte Segurantzako kotizazio-zenbakia adieraziz. Era berean, Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalei dagozkien gertakizunak estali behar dituen erakundea ere jarri behar da, gertakizun horien estaldura Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin edota ugazaben mutualitate pribatu batekin hitzar daitekeela aintzat hartuta.

2. Erdialdea.

Atal horretan, langileen datuak islatzen dira; ondorengo alderdiak kontuan izanik:

- Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalei dagokien tarifa-izenburua aintzat hartuz sailkatu behar dira langileak, eta, horren barruan, Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakiaren arabera, txikienetik handienara ordenatuz.
- Nominetan kalkulatu diren gertakizun arrunt eta profesionalengatiko oinarriak ezarri behar dira.
- Laneko istripu eta gaixotasun profesionalengatik egindako kotizazio-oinarriak aurkezteko, arrisku-izenburu bakoitzeko alde bateko batuketak egin behar dira; beheko partean, berriz, izenburu guztiena.

3. Beheko parte.

Enpresako langileen kopuruak eta horien mugimenduak agertu behar du, baita agiria aurkeztean zerga-bilketarako bulegoan egiten diren gestioak ere.



3.2.2. KOTIZAZIO-BULETINA: TA1 EREDUA

TA1 eredia betetzeko, TA2 eredian islatu diren langile guztien kotizazio-oinarrien erabateko batuketak aintzat hartu behar dira.

Honako atal hauetan dago banatuta TA1 eredia:

1. Identifikatzeko datuak.

TA1 ereduak, m enpresaren identifikatzeko datuak ez ezik, likidazioaldiaren *noiztik eta noiz arte* kutxatilak ere badauzka. Horiek likidazioari dagozkion lehen eta azkeneko hilabeteak ezartzeko erabiltzen dira. Likidazioa hilabetekoa bada, *noiz arte* izeneko kutxatila baino ez da bete behar.

2. Gertakizun orokorrak.

Honako gertakizunen kotizazio-oinarriak islatzen dira atal honetan:

- Gertakizun arruntak. Langile guztien kotizazio-oinarrien batura ezartzen da.
- Aparteko orduak. Bi motatakoak dira: egiturazkoak eta ez-egiturazkoak.

3. Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak.

Ezarririko ehunekoak langileak sailkatuta dauden arrisku-izenburuei dagozkie, horien lanpostuaren arabera. Beraz; lanaren, jardueraren eta industriaren arabera, hainbat eratako sarien bidez bete behar da gertakizun horiengatik egin beharreko kotizazioa. Gainera, sortutako kuotak enpresaburuak berak ordaindu behar ditu. Honako hauek dira:

- a) Aldi baterako ezintasunagatiko kuota (ABE).
- b) Elbarritasun, heriotza eta biziraupenagatiko kuotak (EHB)

4. Beste kotizazio batzuk.

Honako hauek dira:

- Langabezia.
- Soldata Bermerako Fondoa.
- Lanbide Heziketa.

Gertakizun horiei dagozkien kuotak kalkulatzeko, kotizazio-oinarria laneko istripu eta gaixotasun profesionalengatik egindakoa bezalakoxea da. Ezarririko ehunekoak enpresa eta langileei dagozkien ehuneko batura dira.

Aipatutako ehunekoak aurreko gaian ageri dira.

3.3. TA1 ETA TA2 EREDUEN AURKEZPENA ETA PRESTAKUNTZA: KASU PRAKTIKOA

Demagun aurreko gaian eginiko nominak azarokoak direla. Nomina horietan agertzen den informazioa eta ondorengo datuak aintzat hartuta, Gizarte Segurantzako kotizazioen agiriak (TA1 eta TA2 ereduak) nola bete behar diren azaldu behar da.

- Enpresaren jarduera: automobil-industria; makineria elektriko eta elektronikoaren industria (automobilak eta horietarako motorrak egitea).
- LI eta GPetarako Erakunde Aseguratzaila: GSIN (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala).
- Aurreko gaian ikusi bezala, kasu praktikoan agertutako enpresan lau lagunek egiten dute lan. Lau lagun horiek bi arrisku-izenburutan sailkatuta daude: 70 eta 113an.
- Lanaldia eguneko zortzi ordukoa da, astelehenetik ostiralera.

TA1 eta TA2 ereduak ondo egiteko daturik garrantzitsuenak honako hauek dira:

70 izenburua

- Iñaki Rementeria Arevalo:
 - Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria: 1.035 €
 - LI eta GPengatik egindako kotizazio-oinarria: 1.035 €.
- 70 izenburuan sailkatuta dauden langileentzat LI eta GPengatik kotizazio-ehunekoa honako hauek dira:
- Aldi baterako ezintasuna: 1,98
 - Elbarritasun, heriotza eta biziraupena: 1,62

113 izenburua

- Peio Zabala Martinez:
 - Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria: 961,01€
 - LI eta GPengatik egindako kotizazio-oinarria: 1.081,21 €.
 - Ez-egiturazko aparteko orduak: 120,20 €.
- Ana Beriz Gartzia:
 - Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria: 1.095,24 €.
 - LI eta GPengatik egindako kotizazio-oinarria: 1.095,24 €.
- Idoia Bartolomé Bilbao:
 - Gertakizun arruntengatik egindako kotizazioen oinarria: 1.582,66 €.
 - LI eta GPengatik egindako kotizazio-oinarria: 1.795,11 €.
 - Egiturazko aparteko orduak: 150,25 €.
 - Ez-egiturazko aparteko orduak: 62,20 €.



Izenburu honetan sailkatuta dauden langileentzat LI eta GPengatik egindako kotizazio-ehunekoak honako hauek dira:

- Aldi baterako ezintasuna: 0,63.
- Elbarritasuna, heriotza eta biziraupena: 0,36.

Ebazpena:

Enpresak TA2 eta TA1 kotizazioen ereduak bete behar ditu. Halaber, likidazioa egiten den hurrengo hilabeteari dagozkion kuotak sartu behar ditu (gure adibidean, abendukoak).

a) TA2aren betetzeari buruzko iritziak

Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalei dagokien izenburuaren arabera sailkatu behar dira langileak, txikienetik handienara ordenatuz, eta, horien barruan, Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakiaren arabera, beroriek ere txikienetik handienara ordenatuz.

Laneko istripu eta gaixotasun profesionalengatiko kotizazioekin erlazionatuta dagoen atalean, izenburu bakoitzari dagozkion kotizazio-oinarrien alde bateko batuketak egin behar dira.

TA2aren beheko partean langile guztien kotizazio-oinarrien batuketa gauzatu egin behar da, TA1 eredu egiteko erabili behar diren erabateko baturak lortuz.

b) TA1en betetzeari buruzko iritziak

- **Gertakizun orokorrak.** Ezarritako ehunekoak langile eta enpresari dagozkien ehunekoen batura dira. Honako hauek:
 - Gertakizun arruntak: $(23,6 + 4,7) = 28,30$
 - Egiturazko aparteko orduak: $(12 + 2) = 14$
 - Ez-egiturazko aparteko orduak: $(23,6 + 4,7) = 28,30$
- **Laneko istripu eta gaixotasun profesionalak.** Gertakizun horiengatik enpresak baino ez du kotizatzen. Jarritako ehunekoak aldi baterako ezintasun eta elbarritasun, heriotza eta biziraupenagatiko arrisku-izenburuei dagozkienak dira eta izenburu bakoitzeko alde bateko baturen gainean ezarri behar dira, hots:

IZENBURUA	OINARRIAK	EHUNEKOAK		KUOTAK	
		ABE	EHB	ABE	EHB
070	1.035,00 €	1,98	1,62	20,49 €	16,77 €
113	3.971,56 €	0,63	0,36	25,02 €	14,30 €
Guztira	5.006,56 €			45,51 €	31,07 €

Beraz, Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalak, guztira:

$$45,51 € + 31,07 € = 76,58 €.$$

- **Beste kotizazio batzuk.** Langabezia, Soldata Bermerako Fondo eta Lanbide Heziketarengatik ezarritako ehunekoak enpresa eta langileei dagozkien ehunekoen batura dira:



• Langabezia.....	(6 +1,55) = 7,55
• Soldata Bermerako Fondoa.....	= 0,40
• Lanbide Heziketa	(0,6 + 0,1) = 0,70
Guztira	8,65

Ehunekoa guztira (8,65) Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalen kotizazio-oinarrien gainean ezarri behar da. Honako hauxe:

$$5.006,56 \text{ €} \times \% 8,65 = 433,07 \text{ €}.$$



ERANSKINA

ABE ETA EHBARENGATIK EZARRITAKO EHUNEKOAK LAN, JARDUERA ETA INDUSTRIETAN

KOTIZAZIO-EHUNEKOAK 2930/1979ko Errege Dekretua (% 10 murriztuta)				
IZENBURUA	LANGILEEN DESKRIBAPEN OROKORRA	ABE	EHB	GUZTIRA
	NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA.			
1	Lorezaintza	2	1	3
15	Hegazti-baserriak	1,25	1,55	2,80
53	Arrantza-ontzietako tripulazioa.	4,28	4,28	8,56
	MINERAL EZ-ENERGETIKOAK			
61	Hareharri-, granito-, igeltsu- eta marmol- -harrobiak.	4,50	6,75	11,25
63	Beiraren pintura, grabatu eta estanpazioa.	2,16	1,44	3,60
65	Oinetakoentzako betunen eta lurrinen fabrikazioa	1,17	0,54	1,71
	METALEN INDUSTRIA TRANSFORMATZAILEAK			
70	Bizikleta, idazteko makina, kalkulagailuen fabrikazio eta konponketa	1,98	1,62	3,60
73	Labe garaiak, burdinaren galdaketa, ijezketa, tenkaketa	4,05	4,05	8,10
74	Metalezko eraikuntza handiak	4,95	4,95	9,90
77	Doitasun-tresna txikien fabrikazio eta konponketa	2,07	1,17	3,24
	BESTE MANUFAKTURA- -INDUSTRIA BATZUK			
79	Tabako-fabrikazioa	1,17	0,72	1,89
80	Okindegiak, pasta elikagarrien lantegiak	1,80	1,80	3,60
85	Jantzigintza	0,45	0,45	0,90
87	Altzarien pintura eta bernizadura	1,80	1,80	3,60
93	Argazki-laboretegiak	0,54	0,27	0,81



95	Jostailuen fabrikazio eta konponketa	1,98	1,17	3,15
	ERAIKUNTZA			
96	Barne-dekorazioa	1,80	1,08	2,88
97	Eraikin, tunel, galeria eta zubien eraikuntza	4,10	3,50	7,60
	MERKATARITZA ETA OSTALARITZA			
101	Merkataritzako langile arruntak	1,08	0,72	1,80
103	Harategiak, arrandegiak, oilasko eta barruki dendak	2,16	1,44	3,60
105	Hotelak, jatetxeak....	0,63	0,72	1,35
106	Tailer mekanikoak	3,60	2,70	6,30
	GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOAK			
108	Lehorreko garraioen langileak	2,25	1,30	3,55
109	Pisu handiko garraioak	4,95	3,87	8,82
	FINANTZA- -ERAKUNDEAK, ASEGURUAK ETA ZERBITZUAK			
113	Bulegari arruntak	0,63	0,36	0,99
	BESTE ZERBITZU BATZUK			
117	Eraikin-garbitzaileak	2,70	1,71	4,41
119	Irakasleak	1,17	0,81	1,98
123	Ile-apaindegiak eta bestelako apaindegiak	0,72	0,36	1,08
124	Arroparen garbiketa eta lisaketa	0,90	0,72	1,62
126	Bajan dauden langileak	0,27	0,54	0,81

4 ***PFEZaren kontura eginiko atxikipenen likidazioa eta diru-sarrera***

4.1. SARRERA

4.2. ATXIKIPENEN KOPURUA

4.2.1. LANAREN ETEKINAK

4.2.2. JARDUERA PROFESIONALEN ETEKINAK

4.2.3. KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK

4.2.4. SARIAK

4.3. HIRUHILEKO AITORPENA: 110 EREDUA

4.3.1. KASU PRAKTIKOA

4.4. ATXIKIPENEN URTEKO LABURPENA: 190 EREDUA

4.4.1. KASU PRAKTIKOA



4.1. SARRERA

Enpresaburu eta profesionalek kopuru batzuk atxiki eta altxor publikoan sartu behar dituzte. Horien zenbatekoak betetzen diren ordainketekin proportzionala izan behar du.

PFEZaren kontura egindako ordainketa eta atxikipenak likidatzeko eta sartzeko agiri batzuk bete behar dira. Honako koadro honetan ageri direnak, besteak beste:

4.1. koadroa. PFEZaren kontura egindako atxikipenak likidatzeko erabiltzen diren agiri-ereduak.

- **110 Eredua.** Enpresa txiki eta ertainetako PFEZaren kontura egindako atxikipenak (hiruhileko aldizkakotasuna).
- **190 Eredua.** Atxikipenen urteko laburpena da. Eredu hori likidatzen den hurrengo ekitaldiko urtarilean aurkezten da.

4.2. ATXIKIPENEN KOPURUA

PFEZaren kontura eginiko atxikipenen kopurua betetzen diren ordainketen zenbatekoa eta etekinen mota kontuan hartuta ezartzen da.

Atxikipenen ehunekoek betetzen diren etekinen moten arabera izan behar dute. Honako hauek dira:

4.2.1. Lanaren etekinak

- a) *Jasotako diru-ordainketak.* Atxikipena lortu behar da, etekinen kopuruaren eta subjektu pasiboaren egoera pertsonalen arabera, beharreko atxikipenen ehunekoa betetzen den etekin osoari ezarritik.

Honako ehunekoa jarri behar da:

Urtebetekoa baino epe laburragoko lanaren, aldi baterako lanen eta noizbehinkako lanen etekinei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko atxikipen-taulari dagokiona izan behar du ezarri behar den ehunekoak.

- b) Zerga-egoitza Bizkaian duten enpresa zein erakundeetako *Administrazio-kontseiluetako eta horien zeregina betetzen duten batzordeetako kideen ordainsarie* % 35ekoak izan behar dute.
- c) *Jenerotan jasotako ordainsaria.* Euskal Autonomia Erkidegoko atxikipen-taulari dagokion ehunekoa izan behar du.





Bizkaiko Foru
Aldundia

Ogasun eta Finantza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Hacienda
y Finanzas

Pertsona Fisikoen Errentaren
gaineko Zerga
Impuesto sobre la Renta
de las Personas Físicas



110

Likidazio zk.
N.º de liquidación

Aitorpen-likidazioa / Declaración-liquidación

Lanaren, lanbide eta enpresa jardueren etekinak, zein sariak
Rendimientos del trabajo, de actividades profesionales y empresariales o premios

Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak
Retenciones e ingresos a cuenta

Ekitaldia / Ejercicio

Epealdia / Período

Atxikitzailea / Retenedor

IFZ / NIF

Abizenak eta izena edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social

Egoitza fiskala / Domicilio fiscal

Etxe zk.
N.º casa

Letra
Letra

Solairua - Aldea
Piso - Mano

Telefonoa / Teléfono

Identifikazio etiketarentzako tartea
Espacio reservado para la etiqueta identificativa

Udalerrria / Municipio

Posta kodea / Código postal

Probintzia edo L. Historikoa / Provincia o T. Histórico

Lanbide edo jarduera nagusia / Profesión o actividad principal

Kontzeptua / Concepto	Zergadunen kp. N.º de contribuyentes		Ordaindutako kopuruak Cantidades abonadas		Atxikipenak Retenciones	
Bizkaian ematen diren lan zein zerbitzuetatik sortutako etekinak Rendimientos procedentes de trabajos o servicios que se presten en Bizkaia	01		12		23	
Zerga egoitza Bizkaian duten enpresa zein erakundeetako Administrazio Kontseiluetako eta berauen zeregina betetzen duten batzetako kideen ordainsariak Retribuciones de miembros de Consejos de Administración y Juntas que hagan sus veces de empresas o entidades con domicilio fiscal en Bizkaia	02		13		24	
Zerga eragiketen kopuruaren arabera ordaintzen duten enpresa zein erakundeetako pertsonen atxikipenak, izan ere, aurreko atalekoenak direnak (portzentaia ezarri eta gero) Retribuciones de las personas a que se refiere el apartado anterior de empresas o entidades que tributen en proporción al volumen de operaciones (previa aplicación del porcentaje)	03		14		25	
Urtebetekoak baino epe laburragoetako lanaren, boladako lanen eta noiz behinkako lanen etekinak Rendimientos de trabajo en períodos inferiores al año, trabajos de temporada o trabajos circunstanciales	04		15		26	
Langabeziagatiko prestazioak / Prestaciones por desempleo	05		16		27	
Pentsioak eta hartzeko pasiboak / Pensiones y haberes pasivos	06		17		28	
Lanbide, arte zein kirolerako kontraprestazioengatik ordaindutako etekinak; eta komisiadun, merkataritzako agente, eta aseguruetakoa agente eta agenteordeen ordainsariak Rendimientos satisfechos por contraprestaciones profesionales, artísticas o deportivas y retribuciones de comisionistas, agentes comerciales, agentes de seguros y subagentes	07		18		29	
Nekazaritza eta abel jardueren etekinen gaineko atxikipenak Retenciones sobre rendimientos de actividades agrícolas, ganaderas y forestales	08		19		30	
Gauzako ordainsariak / Retribuciones en especie	09		20		31	
Sariak / Premios	10		21		32	
Aurreko atalen barruan ageri ez diren etekinak Rendimientos no comprendidos en apartados anteriores	11		22		33	
Guztira / Totales	34		35		36	
Luzamendu errekarria / Recargo de prórroga					37	
					38	
Sartu beharreko zerga zorra / Deuda tributaria a ingresar ([36] + [37] + [38]) (EUROAK / EUROS)					39	

Data eta atxikitzailearen zigilu eta sinadura / Fecha, sello y firma del retenedor

_____.eko _____.ren _____.(e)(a)n
(Lugar) (año) (mes) (día)

Sarrera frogagarria
Justificante de
ingreso

Kargu taloia / Talón de cargo



8 429893 110108

Zigilu eta sinadura / Sello y firma

Erakundearen gakoa / Clave entidad

Data / Fecha

Zenbatekoa / Importe

4.2.2. Jarduera profesionalen etekinak

Lanbide, arte, zein kiroletako kontraprestazioengatik ordaindutako etekinak eta komisioidun merkataritzako agenteen ordainsariak % 18koak dira. Aseguruetako agente eta agenteordeen ordainsariak, berriz, % 9koak.

4.2.3. Kapital higigarriaren etekinak

Kapital higigarriaren etekinak (akzioak, obligazioak, kontu korronteak, aurrezki-kontuak...) ordaintzen dituzten erakundeek % 18 atxiki behar dute.

Izan ere, kapital higigarriaren ordainsariak jenerotan emanez gero, horien kontura eginiko diru-sarrera kalkulatzeko oinarria erosketa-prezioa edota ordaintzailearentzako kostua % 20 gehitu behar da.

4.2.4. Sariak

Lehiaketetan, jokoetan, zozketetan eta abarretan parte hartzeagatik ematen diren sariak kontura sartu eta atxiki egin behar dira. Beraz, diru-sarietako atxikipen-ehunekoak % 18koa izan behar du. Hala eta guztiz ere, jenerotan emandako sariak badira, kontura eginiko diru-sarrera kalkulatzeko oinarria erosketa-prezioa edota ordaintzailearentzako kostua % 20 gehitu behar da. Bestalde, 300 eurotik beherako diru-sariek ez dute atxikipenik.

4.3. HIRUHILEKO AITORPENA: 110 EREDUA

Atxikitzaileek eta konturako sarrerak egin behar dituztenek atxikitako kopuruaren eta PFEZaren kontura egindako diru-sarreraren aitorpena 110 ereduan aurkeztu behar dute. Halaber, Altxortegi Publikoan sartu behar dute dagokien zenbatekoa.

HIRUHILEKO AITORPENA	
Baldintzak	Aitorpen hori gauzatzen da baldin eta aurreko urtean atxikitzailearen operazioen kopurua 6.000.000 eurotik beherakoa izan bada.
Epeak	Lehenengo hiruhilekoa: apirilaren 1etik 25era. Bigarren hiruhilekoa: uztailaren 1etik 25era. Hirugarren hiruhilekoa: urriaren 1etik 25era. Laugarren hiruhilekoa: hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 25era.
Agiria	110 Eredua: PFEZ. Lanaren, lanbide- eta enpresa-jardueren etekinak eta sariak. Atxikipenak eta kontura egindako diru-sarrera.
Aitorpen negatiboa	
Atxikitzaileek ekitaldi edo epealdian atxikipenik edota kontura eginiko sarrerarik gauzatzen ez badute, aitorpen negatiboa aurkeztu behar dute.	



110 eredua aurkezteko lekua. Atxikipen eta kontura eginiko diru-sarreraren 110 eredua aurkezteko lekua beste bat izan daiteke, aitorpena positiboa edo negatiboa den.

➤ **Sartzeko aitorpena (aitorpen positiboa)**

Atxikitzailleak bere zerga-egoitza duen Zergazko Administrazioako Agentzian aurkeztu behar du. Atxikitzailleak identifikazio-etiketa badauka, horren zerga-egoitzari dagokion probintziako edozein finantza-erakundetan egin ahal du sarrera.

➤ **Ordaintzeko aitorpena (aitorpen negatiboa)**

Atxikitzailleak bere zerga-egoitza duen Zergazko Administrazioako Agentzian aurkeztu behar du, edota Zergazko Administrazioa zuzendu, posta ziurtatuaren bidez.

4.3.1. Kasu praktikoa

Egin ezazue, **REYNOSA, S.A.** enpresak aurkeztu behar izan duen atxikipen eta kontura egingandako sarreraren aitorpena, urteko lehenengo hiru hiletan ordaindutako ordainsariak honakook direla aintzat hartuta:

1) *Lehenengo hiruhileko lanaren etekinak.*

Langilea	Ordainketa gordina	% atxikipena
Beriz Gartzia, Ane	2.943 €	7
Zabala Martinez, Peio	2.961 €	4
Bartolome Bilbao, Idoia	8.517 €	15
Rementería Arevalo, Iñaki	2.732 €	2
Guztira	17.153 €	

2) *Lehenengo hiruhileko jarduera profesionalen etekinak.*

Enpresak abokatu bat kontratatu du, 1.500 € ordainduta.

3) *Sariak.*

Enpresak bezero bati sari bat eman dio. Sari horren kostu-prezioa 750 € izan da.

Ebazpena:

a) Lehenengo hiruhilekoan honako atxikipen hauek egin zaizkie langileei:

Langilea	Ordainketa gordina	% atxikipena	Atxikipena
Beriz Gartzia, Ane	2.943 €	7	206,01 €
Zabala Martinez, Peio	2.961 €	4	118,44 €
Bartolome Bilbao, Idoia	8.517 €	15	1.277,55 €
Rementería Arevalo, Iñaki	2.732 €	2	54,64 €
Guztira	17.153 €		1.656,64 €





Bizkaiko Foru
Aldundia

Ogasun eta Finantza
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Hacienda
y Finanzas

Pertsona Fisikoen Errentaren eta
Sozietateen gaineko Zerga
Impuesto sobre la Renta de las
Personas Físicas y Sociedades

Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak
Retenciones e ingresos a cuenta

190

Aipamen zk.
N.º referencia

Lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinak, sariak eta zenbait errenta-egozketa
Rendimientos del trabajo, de actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta

Ekitaldia / Ejercicio

Urteko laburpena / Resumen anual

Atxikitzailea / Retenedor (1)	Identifikazio etiketarentzako tartea Espacio reservado para la etiqueta identificativa		(2) Aitorpen osagarria Declaración complementaria		☐
			(3) Ordezko aitorpena Declaración sustitutiva		☐
	IFZ / NIF	Deiturak eta izena, izendura edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre, denominación o razón social			
	Zerga egoitza / Domicilio fiscal				Etxe zk. N.º Casa
Udalerría / Municipio		Posta kodea / Código postal	Probintzia edo L. Historikoa / Provincia o T. Histórico		

Harremanetarako pertsona / Persona de contacto (4)

Deiturak eta izena / Apellidos y nombre	Telefona / Teléfono
---	---------------------

Datuen laburpena Resumen de datos	Hartzaileen kopurua guztira / Número total de perceptores 01	
	Hartukizunen zenbatekoa guztira / Importe total de las percepciones (EUROAK / EUROS) 02	
	Adierazitako atxikipen eta konturako sarreraren zenbatekoa guztira Importe total de las retenciones e ingresos a cuenta relacionados (EUROAK / EUROS) 03	

Sartu. atxik. eta kontu. sarreraren laburpena Resumen retenciones e ingresos a cuenta ingresados	Epealdia Período	Zenbatekoa Importe	Epealdia Período	Zenbatekoa Importe	Epealdia Período	Zenbatekoa Importe
	Urtarrila Enero		Maiatza Mayo		Iraila 3. hiruhilekoa Septiembre 3.º trimestre	
	Otsaila Febrero		Ekaina 2. hiruhilekoa Junio 2.º trimestre		Urria Octubre	
	Martxoa 1. hiruhilekoa Marzo 1.º trimestre		Uztaila Julio		Azaroa Noviembre	
	Apirila Abril		Abuztua Agosto		Abendua 4. hiruhilekoa Diciembre 4.º trimestre	
	Guztira / Total (EUROAK / EUROS) 04					

Aurkezteko era: / Presentación en:		Data, zigilua eta atxikitzaile edo aurkezlearen sinadura Fecha, sello y firma del retenedor o del presentador	Erregistroa Registro
Inprimakian / Impreso	☐		
Euskarrian Soporte	Banakakoa / Individual	☐	☐
	Taldeakakoa / Colectivo		
Euskarri mota / Tipo de soporte	Zinta / Cinta	☐	☐
	Disketea / Diskette		
Taldekako aurkezpena / Presentación colectiva			
Atxikitzaileak guztira N.º total de retenedores			
Hartzaileak guztira N.º total de perceptores			



b) Honako atxikipena egin behar zaio abokatuari:

$$1.500 \text{ €} \times 0,18 = 270 \text{ €}$$

c) Sari-balioaren % 18aren konturako diru-sarrera egin behar da, hots:

$$750 \text{ €} \times 0,18 = 135 \text{ €}$$

Bukatzeko, aitorten hori –hiruhilekoa denez– apirilaren 1etik 25era bitartean (110 ereduan) aurkeztu behar da.

4.4. ATXIKIPENEN URTEKO LABURPENA: 190 EREDUA

□ 190 eredia aurkeztu behar dutenak

Jarraian ageri diren errentetariko batzuk ordaintzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek eta gainerako erakunde guztiek, baita administrazio publikoek ere, 190 eredia aurkeztu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoa onetsi duen maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen 10. eta 11. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharra baitaude.

□ Eredua aurkezteko epea

Aurreko urtean atxikitako eta kontura sartutako kopuruei dagokienez, aurkezteko epea urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik 25era bitartekoa da. Epe bera dago ereduaren inprimakia eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria aurkezteko.

□ 190 ereduaren atalak

- *Lehenengo atala:*

- ★ **Atxikitzailea (1)**

Foru Ogasunak ematen duen identifikazio-etiketatariko bat berariaz jarritako tokian itsatsi behar da. Atxikitzaileak etiketarik eduki ezean, identifikazio-datuak bete behar ditu. Hala eginez gero, agiriarekin batera txartelaren fotokopia edo IFZa frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

- ★ **Aitorpen osagarria (2)**

Aitorpena osagarria bada, hots, aitorpenaren xedea ekitaldi bereko beste aitorpen batean –aurretiaz aurkeztutako batean– sartu behar eta ahaztu diren ordainketa batzuk sartzea bada, X batez adierazi behar da. Bestalde, aitorpen osagarrian, lehengo aitorpenean ahazturiko ordainketak baino ez dira sartu behar.

- ★ **Ordezko aitorpena (3)**

Aitorpena ordezkkoa bada, hau da, aitorpenaren xedea aurreko beste bat ezeztatu eta erabat ordezkatzeko bada, hartan datu batzuk oker adierazi zirelako, X batez adierazi behar da.

- ★ **Harremanetarako pertsona (4)**

Erakunde atxikitzaileko pertsona baten datuak adierazi behar dira, inprimakian agerrarazitako datuez zalantzaren bat sortuz gero harekin kontsultatu ahal izateko.



★ **Aitorpeneko datuen laburpena (5)**

1. laukia. *Hartzaileen kopurua guztira*. Aitorpeneko orri guztietan edo euskarrian ageri diren hartzaile guztien kopurua adierazi behar da, bakoitzaren ordainketa-gakoa edota azpigakoak gorabehera. Halaber, barruko orrian hartzaile bat behin baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den bakoitzean hartzaile gisa konputatu behar da.
2. laukia. *Ordainketen zenbatekoa guztira*. Barruko orrialdeko edota euskarri magnetikoko 'Diru-ordainketak' eta 'Jenerotan eginiko ordainketak' laukietan ageri diren kopuruen guztirako batura jarri behar da, bakoitzaren ordainketa-gakoa edota azpigakoak gorabehera.
3. laukia. *Adierazitako atxikipenen eta konturako diru-sarreraren zenbatekoa guztira*. Barruko orrialdean edota euskarrian adierazi diren atxikipenen eta konturako diru-sarrera guztien batura jarri behar da, bakoitzaren ordainketa-gakoa edota azpigakoak gorabehera.

★ **Eginiko atxikipen eta konturako diru-sarreraren laburpena**

Egin diren atxikipenen eta konturako diru-sarreraren guztirako zenbatekoa banakaturik adierazi behar da, hilez edo hiruhilekoz, dagokion legez. Guztirako kopurua 4. laukian jarri behar da.

- *Bigarren atala:*

Barruko orria nola bete:

★ **Identifikazio-datuak**

Atxikitzailearen IFZa: pertsona edo erakunde aitortzailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia adierazi behar da.

Ekitaldea: aitorpenari dagokion ekitaldiaren lau zifrak jarri behar dira.

★ **Hartzaile bakoitzaren datuak**

Hartzailearen IFZa: hartzaile bakoitzaren Identifikazio Fiskaleko Zenbakia adierazi behar da. Hala eta guztiz ere, hartzailea errenten eskurantzako erregimenean dagoen erakundea bada, haren IFZa jarri behar da.

Legezko ordezkariaren IFZa: lauki hau IFZrik ez duen adin-txikiko hartzailearen bat dagoenean baino ez da bete behar; hala bada, haren legezko ordezkariaren IFZa jarri behar da (aita, ama edota tutorearena).

★ **Ordainketei buruzko datuak**

Gakoa eta azpigakoa: ordainketei dagozkien gako alfabetikoa eta bi digitu dauzkan azpigako zenbakizko azpigakoa adierazi behar dira. Honako hauexek:

A gakoa: inoren konturako langileak. Dirutan eta jenerotan jasotako ordainsariak.

B gakoa: pentsioak eta hartzeko pasiboak.

Azpigakoak: 01 Gizarte Segurantzako erregimenaren pentsioak eta hartzeko pasiboak.

02 01 azpigakoan agertzen ez diren ordainketak.

C gakoa: langabeziaren prestazioak edo sorospenak (ordainketa bakarraren modalitatekoa izan ezik).

E gakoa: kontseilariak eta administratzaileak.

F gakoa: ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak, obra literarioak, artelanak edota lan zientifikoak.

Azpigakoak: 01 Literatura-, zientzia- edota arte-arloetako sariak.

02 F gakoko 01 azpigakoan agertzen ez diren ordainketak



Diputación Foral
de BizkaiaDepartamento de Hacienda
v Finanzas

en

190

Lanaren eta jardueraren ekonomikoaren etekinak, sariak eta zenbait errenta-egoketa
Rendimientos del trabajo, de determinadas actividades económicas, premios y determinadas imputaciones de renta
zenen zerrenda / Relación nominal

Orri zk. / Hoja n.ºSartu gabeko kopurua (irreg.) / Cantidad no integrada (irreg.)Sartu gabeko kopurua (irreg.) / Cantidad no integrada (irreg.)Sartu gabeko kopurua (irreg.) / Cantidad no integrada (irreg.)

ntu. sarrerak / Retenciones e ingresos a cuenta

Data, zigilua eta atxikitzailearen sinadura
Fecha, sello y firma del retenedor

G gakoa: lanbide-jarduerak, artistenak eta kirolarienak.

Azpigakoak: 01 atxikipen-tasa orokorra ezarritzen diren ordainketak

02 'Tabacalera Sociedad Anónima'ko ordezkari bermatuei, udaletako biltzaileei, merkataritzako azpiagente edota laguntzaileen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru-agenteei, eta aseguru-artekariei eta lehengo kirol Onegintzako Elkarrekiko Apustuen Patronatuko lurralde-ordezkariari (orain Estatuaren Loteria eta Apustuatarako Nazio Erakundean sartuta dago) ordaindutako etekinatarako ezarritako atxikipen-tasa aplikatuz sortzen diren ordainketak.

H gakoa: nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak.

I gakoa: jabetza intelektualetik eta industrialetik datozen etekinak, laguntza teknikoak, emaketatik datozenak, aurreko ondasunak azpierrengatetik datozenak eta irudi-eskubidea utziz jasotzen direnak: horiek guztiak Pertsona Fisikoen Erretaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera, jardura ekonomikotzat hartzen badira.

K gakoa: dirutan eta jenerotan jasotako sariak.

L gakoa: salbuetsitako errentak eta kargarik gabeko sariak.

Azpigakoak: 01 Bidaia-gastuetatik datozen sariak eta diru-kopuruak.

02 Terrorismo-ekintzak direla eta datozen prestazio publikoak.

03 Giza Inmunoeskasiaren Birusak jotakoek jasotzen dituzten laguntzak.

04 Gerra Zibilean edo haren ondorioz jasandako lesioengatik edota elbarritasunengatik jasotzen diren pentsioak.

05 Langilea iraitzi edo lana utzaraztetik datozen kalte-ordainak.

06 Erabateko ezintasun iraunkorretik edo elbarritasun larritik datozen prestazioak.

07 Klase pasiboen erregimeneko ezgaitasun edo ezintasun iraunkorretik datozen pentsioak.

08 Ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko Gizarte Segurantzak ematen dituen familia-prestazioak.

09 Norbait etxean hartzeagatik jasotzen diren diru-kopuruak.

10 Ikasketatarako beka publikoak.

11 Literatura-, zientzia- edo arte-arlokoetako sariak.

12 Goi mailako kirolarientzako laguntza ekonomikoak.

13 Ordainketa bakarrean jasotzen diren langabezia-prestazioak.

14 Nazioarteko bake-misioetan parte hartzeagatik jasotzen diren aparteko haborokin publikoak.

15 Atzerrian lan egiteagatik jasotzen diren lan-tekinak.

Diru-ordainketak: hartzaileari urteko ordaindutako diru-ordainketen zenbateko osoa adierazi behar da.

Egindako atxikipenak: PFEZaren kontura urteko atxikitako zenbatekoa adierazi behar da.

Sartu gabeko kopurua (irregularra):

1. Irregularizat jotako etekinak sartu badira, edo bi urte baino denbora luzeagoan sortu diren etekinak, lauki horretan etekin garbi horien % 30 adierazi behar da.
2. Bost urte baino denbora luzeagoan sortu diren etekinak sartu badira, lauki honetan etekin garbi horien % 40 adierazi behar da.

Ezkontidearentzako konpentsazio-pentsioak: hala denean, hartzaileak bere ezkontideari epailearen ebazpenaren bidez ordaindu behar dion pentsioaren urteko zenbatekoa adierazi behar da.

Ondorengoen kopurua: kenketa egiteko eskubidea ematen duten ondorengoen guztirako kopurua jarri behar da.



Jenerotan egindako ordainketak: hartzaileari ekitaldian jenerotan egin zaizkion ordainketen balorazioen batura adierazi behar da.

Egindako konturako sarrerak: ordaintzaileak urtean kontura sartutako zenbatekoa adierazi behar da.

Jasanarazitako konturako sarrerak: jenerotan jasotako ordainsarien ordaintzaileak hartzaileari jasanarazitako konturako sarreren zenbatekoa adierazi behar da.

4.4.1. Kasu praktikoa

REYNOSA, S.A. enpresako atxikipenen eta PFEZaren kontura egindako sarreren urteko laburpena egin behar da. Horretarako, 2. gaian ageri diren langileak hartu behar dira oinarritzat, urte osorako aurreikusitako ordainketak gehi aparteko orduak, urteko ordainketak guztira egin zirela kontuan izanik.

Halaber, eman dezagun enpresak aseguruetako agente bat kontratatu eta bezeroei sariak –jenerotan– eman dizkiela.

1. *Lanaren etekinak.* Urte osorako aurreikusitako ordainketak honako hauek dira:

Langilea	Urteko ordainketa gordina	Atxikipena (%)
Beriz Gartzia, Ane	13.647,76 €	7
Zabala Martinez, Peio	11.539,43 €	4
Bartolomé Bilbao, Idoia	21.247,87 €	15
Rementeria Arevalo, Iñaki	12.592,15 €	2
Guztira	62.027,21 €	

2. *Jarduera profesionalen etekinak*

Enpresak, 4.207 € ordainduta aseguruetako agente bat kontratatu du.

3. *Sariak.* 1.803 €ko sariak eman dira jenerotan.

Ebazpena:

1. *Lanaren etekinak.* Hona hemen gauzatutako urteko atxikipenak:

Langilea	Urteko ordainketa gordina	Atxikipena (%)	Egindako atxikipena
Beriz Gartzia, Ane	13.647,76 €	7	955,34 €
Zabala Martinez, Peio	11.539,43 €	4	461,58 €
Bartolomé Bilbao, Idoia	21.247,87 €	15	3.187,18 €
Rementeria Arevalo, Iñaki	12.592,15 €	2	251,84 €
Guztira	62.027,21 €		4.855,94 €



- II. Jarduera profesionalen etekinak: enpresak ordainketa gordinaren gainean % 9 atxiki behar du, aseguruetako agente bat kontratatatu duela kontuan izanik. Beraz:

$$\text{gauzatutako atxikipena: } 4.207 \text{ €} \times \% 9 = 378,63 \text{ €}$$

- III. Sariak. Bezeroei jenerotan emandako sariak direla-eta kontura eginiko diru-sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, horien kostu-balioa edota merkatu-balioa % 20 gehitu behar da, hots:

$$\text{merkatu-balioa: } 1.803 \text{ €} + (1.803 \text{ €} \times 0,20) = 2.163,6 \text{ €}$$

$$\text{kontura egindako diru-sarrera: } 2.163,6 \text{ €} \times 0,20 = 432,72 \text{ €}$$

Datu horiek guztiak eransten den 190 ereduan jarri behar dira. Bestalde, aipatutako eredua atxikipenei dagokien hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 25era bitartean aurkeztu behar da.



Bibliografia

- *Giza Baliabideak*. MC GRAW HILL
- *Lan-prestakuntza eta Orientabidea*. ELHUYAR
- Gizarte Segurantzak eta Ogasun eta Finantza Sailak argitaratutako liburu eta agiriak.



ELHUYAR edizioak

ESKOLA-LIBURUAK

HEZIKETA-ZIKLOAK

- **ZE HAR-LERROAK**
- **ADMINISTRAZIOA**
- **ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA**
- **ELIKAGAIGINTZA**
- **FABRIKAZIO MEKANIKOA**
- **NEKAZARITZA ETA ABERE-HAZKUNTZA**
- **OSASUNGINTZA**
- **ZURGINTZA eta ALTZARIGINTZA**

